| Begoña: kirol-hastapeneko unitateak arautzen dituen egungo araudia hiru foru-agindutan jasotzen da (63/2007, 69/2008 eta 02-118/2017).<br><br>Araudi hori foru-agindu bakar batean biltzea justifikatzen duten hainbat arrazoi daude: alde batetik, 63/2007 eta 69/2008 foru-aginduak eskola-kirolari buruzko 125/2008 Dekretua onartu aurrekoak dira; eta, bestetik, komenigarritzat jo da lehen | BEGOÑA: la actual normativa que regula las unidades de iniciación deportiva se recoge en tres ordenes forales (63/2007, 69/2008 y 02-118/2017).<br><br>Concurren varias circunstancias que justifican que dicha normativa se aglutine en una única orden foral: por un lado, las ordenes forales 63/2007 y 69/2008 son anteriores a la aprobación del decreto 125/2008 de deporte escolar; y por |

| | |
|---|---|
| aipatutako araudia eguneratzea eta bateratzea, hura hobeto sistematizatzeko, interpretatzeko eta zabaltzeko. | otra parte, se ha estimado conveniente actualizar y refundir la normativa antes mencionada para una mejor sistematización, interpretación y difusión de la misma. |
| Foru agindu berriak bi kapitulu ditu: batetik, ikasleentzako kirol-hastapeneko unitateak baimentzeko araubide orokorra arautzen da, eta, bestetik, dagoeneko araututa dauden modalitateen hastapeneko unitateen araubidea, saskibaloia, eskubaloia, futbola eta errugbia, hain zuzen ere. | La nueva orden foral contiene dos capítulos, en los cuales se regula, por un lado, el régimen general para la autorización de las unidades de iniciación deportiva para escolares, y, por otro lado, el régimen de las unidades de iniciación de las modalidades ya reguladas que son las modalidades de baloncesto, balonmano, fútbol y rugby. |
| Une honetan, foru-aginduaren zirriborroa entzunaldi-izapidean dago kirol-eragileek (federazioak, klubak, ikastetxeak eta udalak) egoki iritzitako alegazioak edo oharrak egiteko. Epe hori 2021eko martxoaren 23an amaituko da. Epe horren ondoren, aurkeztutako alegazioak aztertuko dira, eta behin betiko testua proposatuko da, departamentuko foru diputatuak onar dezan eta, ondoren, GAOn argitara dadin. | En estos momentos, el borrador de orden foral se encuentra en trámite de audiencia para formular alegaciones u observaciones que se estimen oportunas por parte de los diferentes agentes deportivos (federaciones, clubes, centros escolares y ayuntamientos). Dicho plazo finaliza el próximo 23 de marzo de 2021. Después de dicho plazo, se analizarán las alegaciones presentadas y se propondrá el texto definitivo para su aprobación por parte del diputado foral del departamento y posterior publicación en el BOG. |
| Jon: banakako kirolaz ez da inoiz hitz egiten. MK-an ez dira txertatzen, kirol eskolak ere ez daude arautuak. Ez dut ulertzen nola banakako kirolak dauden erabat baztertuak hainbeste urte eta gero. Agian orain da momentua refundidoan alegazioak egiteko. | Jon: del deporte individual nunca se habla. En el MK no se incorporan, las escuelas deportivas tampoco están reguladas. No entiendo cómo los deportes individuales están totalmente descartados después de tantos años. Quizá ahora es el momento de hacer alegaciones en el refundido. |
| IÑAKI: banakako modalitateekin bagaude ere azterketa sakonak egiten eta aldaketak proposatzen. Bai ulergarria izan daiteke bilera hauen muina edo ardatza izatea programa eta koordinazioa eragileen artean gehien bat ikastetxeen bidez garatzen den programaren inguruan, baina bestelako kontuan ere garatzen ditugu. | Iñaki: también estamos con modalidades individuales, haciendo estudios en profundidad y proponiendo cambios. Sí puede ser comprensible que el eje central de estas reuniones sea el programa y la coordinación entre los agentes en torno al programa que se desarrolla mayoritariamente a través de los centros, pero también lo hacemos en otras cuestiones. |
| ITSASO: lanean gaude banako modalitateekin. Hasierako bilera batzuk hasi genituen gimnasia, judo, igeriketako klub eta federazioekin, nahiz eta aurten geratu diren. | Itsaso: estamos trabajando con modalidades individuales. Comenzamos unas reuniones iniciales con gimnasia, judo, clubes y federaciones de natación, aunque este año se han quedado. |
| MANOLO: kirol eskolak direla eta, beti gehigarri kontsideratu dira. Urteak dira esaten dela falta diren modalitateak arautuko direla, baina ez da iristen momentu hori eta guretzat izugarrizko arazoa da. | Manolo: en el tema de las escuelas deportivas, siempre se han considerado complementarias. Hace años que se dice que se regularán el resto de las modalidades, pero no llega ese momento y para nosotros eso es un problema. |
| Adibidea: guraso bat etortzen da bi semeekin: batek, pilota egiten astean hiru egunetan eta besteak futbola, astean saio bat eta honek, derrigorrez, Multikirola egin behar du. Guk Hernanin adostu genuen denei derrigortzea Multi egitea eta erabaki honek arazo ugari suposatzen dizkigu. Ez dugu ondo ikusten batzuk saio bat bakarra egiteko aukera izatea, eta beste batzuk, 3 eta 4 saio egin zezaketenik. Eta gu lehenengo lerroan gaude. | Ejemplo: un padre viene con dos hijos: uno hace pelota 3 días a la semana; y el otro hace fútbol una sesión a la semana y este está obligado a participar en Multikirola. En Hernani acordamos obligar a todos a hacer Multi y eso nos supone numerosos problemas. No vemos bien que unos solamente puedan hacer una sesión, y otros hagan 3 y 4 sesiones a la semana. Y nosotros estamos en primera línea. |
| IÑAKI: Denbora asko daramagu horrekin. Nahiko indartsu hasi ginen 3-4 federazio eta klubekin bilerak egiten beste modalitate batzuk arautzeko, baina Covid delakoaren ondorioz eten egin ziren. | Iñaki: ya llevamos mucho tiempo con eso. Empezamos bastante fuertes teniendo reuniones con 3-4 federaciones y clubes para regular otras modalidades, pero debido al Covid se interrumpieron. |
| Horretarako, foru-arauaren izapidetzea sustatzen ari gara, gaia batzar nagusietara eramateko, horrela, Gipuzkoako Eskola Kirolaren oinarriak eta bertatik garatu beharko ditugun ekimenak zehazteko. Ados gaude horri bide eman behar diogula. Ez da erraza, suposatzen dituen aldaketengatik. Gipuzkoak Batzar Nagusien bidez onartzen badu hori dela nahi duen eredua, guk bide hori hartuko dugu. | Para eso, también estamos promoviendo la tramitación de la norma foral para llevar el tema a las juntas generales, para así concretar las bases del Deporte Escolar de Gipuzkoa y las iniciativas que tendremos que desarrollar desde ella. Estamos de acuerdo en que debemos dar paso a eso. No es fácil por los cambios que supone. Si Gipuzkoa acepta a través de las Juntas Generales que ese es el modelo que quiere, nosotros vamos a tomar ese camino. |

| | |
|---|---|
| ASIER AUZMENDI: errefundidoko 31. artikulua futbolaren bakarrik dagokion ala lau modalitateei?<br><br>BEGOÑA: bai, futbolari dagokio, zehazki gizonezkoen alebin mailako bigarren urteari.<br><br>ASIER: Baina, egia esan, bigarren urteko alebinek, modalitate guztietan, tratamendu bera izan beharko lukete, guztiek astean bi saio egiteko joera baitute.<br><br>BEGOÑA: Araututako modalitate guztietako 2. urteko errendimenduko talde guztiek astean bi entrenamendu-saio izan ditzakete. Futbolaren kasuan, gizonezkoen 2. urteko alebinetako Hobekuntzako taldeak ere astean bi saio. Aldiz, oinarrizko taldeek, araututako gainerako modalitateetan bezala, astean entrenamendu saio bakarra egin dezakete.<br><br>ASIER: klub batzuk ezberdintasunik ez egitearren bukatzen dute bi saio egiten, eta agian, hori jakinda, horri bide eman beharko litzaioke.<br><br>IÑAKI: barruko desberdintasunak ez egitearren proposatzen diegu saio bakarrera pasatzea, baina horrek normalean ez du arrakastarik izaten. | Asier Auzmendi: ¿el artículo 31 del refundido corresponde exclusivamente al fútbol o a las cuatro modalidades?<br><br>Begoña: Si, corresponde al futbol, concretamente al segundo año de la categoría alevín masculina de futbol.<br><br>Asier: Pero en realidad, los alevines de segundo año en todas las modalidades deberían de tener el mismo tratamiento, porque todas tienden a hacer bi sesiones semanales.<br><br>Begoña: todos los equipos de rendimiento de 2º año alevín de todas las modalidades reguladas pueden tener 2 sesiones semanales de entrenamiento. En el caso del fútbol, también los equipos de Perfeccionamiento de 2º año alevín masculino. En cambio, los equipos de base, al igual que en las demás modalidades reguladas solamente pueden realizar una sesión de entrenamiento a la semana.<br><br>Asier: Hay clubes que terminan haciendo dos sesiones por no hacer diferencias y quizás, sabiendo eso, habría que dar paso a eso.<br><br>Iñaki: para no hacer diferencias internas les proponemos pasar a una sola sesión pero eso, normalmente, no tiene éxito. |
| **6. Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluaren datozen hauteskundeak** | **6. Próximas elecciones del Consejo Territorial de Deporte Escolar.** |
| Itsasok azaldu du Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluan hauteskundeak egitea tokatzen dela. Berez, abenduan egin behar ziren, baina dugun egoera dela eta atzeratu egin dira. Oraingo honetan, ondorengo erakundeen aldaketa tokatzen da:<br>. 3 udal (Hernani, Deba eta Zarautz),<br>. 2 federazio (atletismo eta judoa)<br>. 2 ikastetxe (Orereta eta Urretxu-Zumarraga).<br><br>Datozen egunetan eragileei bidaliko zaien e-posta azalduz hauteskundeen inguruko informazioa. | Itsaso explica que hay que realizar elecciones en el Consejo Territorial de Deporte Escolar. En realidad tocaba realizarlo en diciembre, pero por la situación que hemos tenido se ha pospuesto. En esta ocasión toca el cambio de:<br>. 3 ayuntamientos (Hernani, Deba y Zarautz),<br>. 2 federaciones (atletismo y judo)<br>. 2 centros escolares (Orereta y Urretxu-Zumarraga).<br><br>En los próximos días se enviara un e-mail a los agentes con toda la información al respecto. |
| 7. Web orriko informazioa (asegurua, etab.) | 7. Información en la web (seguro, etc.) |
| Itsaso aipatzen du Gipuzkoa Kirolak web orrian eskola kirolean parte hartzen dutenen aseguruaren inguruko informazioa zintzilikatuko dela. | Itsaso menciona que en la página web de Gipuzkoa Kirolak se colgará información sobre el seguro de los que participan en deporte escolar. |
| 8. Eusko Jaurlaritza Formakuntza (Covid-19) | 8. Formación Gobierno Vasco (Covid-19) |
| Itsasok azaldu du Eusko Jaurlaritzak Eskola kiroleko begiraleentzako Covid-19ren inguruko ikastaroaren eguneraketa baten deialdia bidali zuela otsailean. Ikastaroaren bigarren zati hau egitea derrigorrezkoa da diploma lortzeko. Izen ematea egiteko epea maiatzaren 3an bukatzen da. | Itsaso explica que el Gobierno Vasco envió en febrero la convocatoria de una actualización del curso sobre Covid-19 para los monitores de Deporte Escolar. La realización de esta segunda parte del curso es obligatoria para obtener el diploma. El plazo de inscripción finaliza el 3 de mayo. |
| 9. Bestelakoak | 9. Otras cuestiones |
| FERNANDO URIEN: oso gaizki hartu genuen Asmoz Fundazioak egiten zuen begiraleentzako 20 orduko ikastaroaren desagertzea hori. Oso gaizki iruditzen zaigu hori kendu izana. | Fernando URIEN: Nos pareció muy mal que desapareciera el curso de 20 horas para monitores que realizaba la Fundación Asmoz. Nos parece muy mal que se haya quitado eso. |

| | |
|---|---|
| Oraindik okerrago da Bizkaikoa egin behar izatea. Bere garaian eskatu nion GFAri hor zegoen material gure esku jartzea, ze material baliagarria da. Badakit pisu ofizialik ez duela izango baina gauzak egin daitezke. Oso gustura ginen asmoz fundazioaren ikastaroarekin. | Todavía nos parece peor tener que hacer el de Bizkaia. En su día le pedí a la DFG que pusiera a nuestra disposición el material que estaba en ese curso, porque nos parece que ese material es muy útil. Sé que no tendrá peso oficial pero se pueden hacer cosas. Estábamos muy satisfechos con el curso de la fundación Asmoz. |
| IÑAKI: aurten aurreikusita dago lanbideen legea onartzea eta horrekin batera aldaketak datoz. Gu saiatu gara horri begira jartzen eta lanean egon gara hiru lurraldeko aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Guk ez dugu inongo eskumenik formazioa emateko. | Iñaki: este año está prevista la aprobación de la ley de profesiones y con ella vienen los cambios. Nosotros hemos intentado ponernos a ello y hemos estado trabajando con las diputaciones de los tres territorios y con el Gobierno Vasco. Nosotros no tenemos ninguna competencia para dar formación. |
| Gure harridurarako atera zen eskaintza bat Bizkaian, Euskal Kirol Eskola eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean eskaintzen duten ikastaroa da. | Para nuestra sorpresa, ha salido una oferta en Bizkaia, un curso acordado entre la Escuela Vasca de Deporte y la Diputación Foral de Bizkaia. |
| Gipuzkoako egoera honakoa da: gu begira gaude lege berriari eta une honetan hausnarketa bat egiten ari gera Kirol Zerbitzu barruan, identifikatzeko, alde batetik, legeak eskatuko dituen titulazioak, horrek zein eragin izan dezake gure egoeran eta ze prestakuntza beharko dugu horretarako. | La situación en Gipuzkoa es la siguiente: nosotros estamos mirando la nueva ley y en este momento estamos haciendo una reflexión dentro del Servicio de Deportes para identificar por un lado las titulaciones que va a exigir la ley, cuál puede afectar a nuestra situación y qué formación vamos a necesitar para ello. |
| Behin hasierako hausnarketa eginda zuekin partekatuko dugu. Baina argi dugu betetzen ari ginen bitartekari lan hori bere horretan utzi behar genuela. Trantsizio fase batean gaude eta uste dut hemendik hilabete batzuetara gauzak argiago izango ditugula. | Una vez hecha la reflexión inicial la compartiremos con vosotros/as. Pero tenemos claro que teníamos que dejar intacta esa labor de intermediación que estábamos realizando. Estamos en una fase de transición y creo que de aquí a unos meses tendremos las cosas más claras. |
| ASIER: EKI-rentzako diru laguntza egongo da monitore estragatik? Aparteko diru kopururik aurreikusita dago horretarako? | Asier: ¿habrá subvención para EKI por monitor extra? ¿Hay alguna cantidad extraordinaria prevista para ello? |
| IÑAKI: diru laguntza lerroa badago EKI-rako. EKE-tarako aurreikuspen gehiago dago. EKI-ak ere ari dira areagotzen, EKI horiek beharko dituzten begiraleak finantzatzeko. Nik uste dut, hiru aste barru diru laguntzen oinarriak aterako direla. Guzti honen berri jasoko duzue. | Iñaki: hay línea de subvención para EKI. Hay más previsiones para EKE. También se están incrementando los EKI para financiar a los monitores que van a necesitar. Yo creo que en 3 semanas saldrán las bases reguladoras de las subvenciones. Recibiréis noticias de todo esto. |
| UNAI ESNAL: Fernandorekin ados. Urtero 13-15 begirale behar izaten ditugu eta diru laguntzak jasotzeko minimo bat eskatzen dute. ASMOZ-eko ikastaroak gutxieneko hori betetzen zuen eta Bizkaiako ordezko ikastaroa ez zaigu egokia iruditzen. Dezepzioa Oarsoaldean. | Unai ESNAL: de acuerdo con Fernando. Necesitamos 13-15 monitores cada año para ello y se pide un mínimo a la hora de recibir subvenciones. El curso de ASMOZ cumplía ese mínimo y el curso alternativo de Bizkaia no nos parece adecuado. Decepción en Oarsoaldea. |
| Covid19-aren egoerak balio izan digu lehia gabeko Eskola Kirola ikusteko. Egia da horren ondorioz aurten apuntatu dela bestelako jendea, lehiari pisua kenduta gauza interesagarriak ikusten ari gara. Ez dut ulertzen kirol federatuari ematen ari zaion pisua. | La situación del Covid19 nos ha servido para ver a Ec sin competencia. Es cierto que como consecuencia este año se ha apuntado a otra gente, quitando peso a la competición se están viendo cosas interesantes. No entiendo el peso que se le da al deporte federado. |
| Iñaki: partekatuko dugu prestakuntzaren inguruan gure lankideekin komentatzen ari zaretena. | Iñaki: vamos a compartir lo que estáis comentando sobre la formación con nuestros compañeros/as. |
| OINATZ (galderak chat-aren bidez helarazi ditu konexioarekin arazoak ditu eta): | Oinatz (traslada las preguntas mediante chat por problemas con la conexión): |
| Diru laguntzen inguruan 3 galdera:<br>1. Orain artean, kasu batzuetan, 3.mailako guztiak talde bakarrean inskribatzen genituen (nahiz eta egunerokoan talde ezberdinak izan). Hemendik aurrera ulertzen dut talde guztiak inskribatzeak dirutan gehiago suposatuko duela eta horrela egitea komeni zaigula, ezta? IÑAKI: Kaixo, Oinatz, eskolaumeak benetako taldeetan inskribatu behar dira. Taldea identifikatzeko monitorea lagungarria | Sobre las subvenciones 3 preguntas:<br>1. Hasta ahora, en algunos casos todos los alumnos de 3º los inscribíamos en un único equipo (aunque en el día a día fueran grupos diferentes). A partir de ahora entiendo que inscribir todos los equipos va a suponer más dinero y que nos conviene hacerlo así ¿no? Iñaki: Hola, Oinatz, los escolares deben inscribirse en grupos reales. El monitor puede ayudar para identificar el |

| | |
|---|---|
| izan daiteke. Hau da, zenbat haur dago monitore bakoitzeko.<br>2. Diru laguntzen inguruan, partida hauek egongo dira: Joan etorriak, kirol materiala eta GKP? Itsaso: Bai, egongo dira, joan-etorrien kasuan baldin eta lehiaketak izaten badira. Aurreikusten da diru laguntzen oinarriak Aste Santua eta gero argitaratuko direla.<br>3. Sustapen jarduerak ahalbidetuta daude? eskola orduetatik kanpo direnak esan nahi dut. Gure kasuan, ekainean antolatzen ditugu Sustapen jarduerak (surf, espeleologia, karting, eskalada, etab.) egun bakarreko ekintza gisa. Hauek antolatzea posible da? Itsaso: Bai, betiere burbuilak mantenduz eta segurtasun neurriak errespetatuz. | grupo. Es decir, cuántos niños hay por monitor.<br>2. En cuanto a las subvenciones, habrá estas partidas: en desplazamientos, material deportivo y PDJ? Itsaso: sí, si que habrán subvenciones. En el caso de las subvenciones por desplazamientos habrán si se realizan competiciones. Se prevé que las bases de subvención se publiquen después de Semana Santa.<br>3. ¿Están permitidas las actividades de promoción? Quiero decir las que están fuera del horario escolar. En nuestro caso, en junio organizamos actividades de promoción en surf, espeleología, karting, escalada, etc... actividades de un solo día. ¿Es posible organizarlos? Itsaso: sí, siempre manteniendo las burbujas y respetando las medidas de seguridad. |
| PABLO: Unaiek esandakoarekin ados gaude Irunen. Beste urteetan, emakumezkoen parte hartzearekin arduratuak egon dira Uste dugu lehia ez egoteak eragin ona izan duela. Entrenamendu saioak prestatzerakoan beste buelta bat eman zaio. Bestetik, kirol federatuari ematen zaion trataeraren harira ez dugu ezer ulertzen. Unaiekin ados. | Pablo: En Irún estamos de acuerdo con lo que lo que ha dicho Unai. Otros años, han estado preocupados por la participación femenina. Creemos que la ausencia de competencia ha influido favorablemente. A la hora de preparar las sesiones de entrenamiento se le ha dado otra vuelta de tuerca. Por otro lado, no entendemos el tratamiento que se le da al deporte federado. De acuerdo con Unai. |
| Bukatzeko, ikastetxeek eskatu didate kexa azaltzeko kirol material banaketarekin gertatutakoarekin. Irunen ez zen egoki ulertu aplikazioan azaroan izena emanda ez zegoenak ez zuela materialik lortuko. Txingudi ikastolak ez zuen MK izenemateak egin, baina igeriketa eta atletismoan izenemateak egin zituelako kirol materiala jaso zuen. Iruditzen zaigu ezarritako irizpideak haserrea piztu dituela. | Para terminar, los centros escolares me han pedido que presente una queja con lo ocurrido con la distribución de material deportivo. En Irún no se entendió que quien no estuviera inscrito en la aplicación en noviembre no obtendría material deportivo. La ikastola Txingudi no realizó inscripciones en Multikirola pero recibieron material deportivo porque realizaron inscripciones en natación y atletismo. Nos parece que los criterios adoptados han suscitado indignación. |
| IÑAKI ITURRIOZ: Aurten, berriro, lehengo erara egingo da. Kasu honetan gertatu dena da Covid kontuagatik aurrekontu partida bat izan genuela eta irizpidea izan zen 2020-21 ikasturtean izenemateak egina izatea. Ez zen beste urteetan bezala, joandako ikasturteko izenemateak kontuan izan. Aurten, saiatuko gara betiko irizpideak mantentzen. | Iñaki Iturrioz: este año se volverá a realizar como se hacía anteriormente. Lo que ha sucedido esta vez es que con el tema del Covid nos asignaron una partida presupuestaria y el criterio fue que para repartir material la inscripción de equipos estuviera realizada en el curso 2020-21. No se tuvo en cuenta, como en años anteriores, las inscripciones realizadas del curso anterior. Este año, intentaremos mantener los criterios de siempre. |
| Bestetik, udal ordezkariek komentatu duzue ikastetxeetan gauza interesagarriak ikusi dituzuela. Federazioetako ordezkariek horrelakorik susmatu al duzue lehiaketa ezinezkoa izan denean? | Por otro lado, los representantes municipales habéis comentado que habéis visto cosas interesantes en los centros. Los representantes de las federaciones, habéis percibido algo así en esta época en la que no se han podido realizar competiciones? |
| AITOR GARRO (atletismo): ume kopurua oso altua izan da. Hala ere, guretzako txikiekin lehiaketarik ez egotea arazoa da, motibazio faltagatik. Beste batzuetan, aukera egon denean ez dira azaldu.Bi kasuak izan ditugu. | Aitor Garro (atletismo): el número de escolares ha sido muy alto. Que no haya competición con los pequeños para nosotros es un problema, por la falta de motivación. Otras veces, cuando ha habido ocasión no han aparecido. Hemos tenido los dos casos. |
| IÑAKI ITURRIOZ: motibazio falta aipatzen da lehiaketa ez dagoenean. Agian adina gora egin heinean gehiago aipatzen da motibazio falta hori. Ondo dago zuen ikastetxeen esperientzia interesgarriak ere jasotzea. | Iñaki Iturrioz: se habla de falta de motivación cuando no hay competición. Quizá a medida que aumenta la edad se menciona más esa falta de motivación. Está bien recoger también experiencias interesantes de vuestros centros. |
| Jose Angel (Karateko Fed.): ahal ditugun jarduera guztiak egiten saiatzen gara. Arazo gehien izan dituztenak ikastetxeetako jarduerak egin dituztenak izan dira. Gimnasioan aritzen direnek jarduera gehiago egin dute. Oro har, parte-hartzea %60 jaitsi da. | JOSE ANGEL (Fed. Karate): intentamos hacer todas las actividades que podemos. Los que han tenido más problemas son los que han hecho las actividades en los colegios. Los que hacen en gimnasio tienen más actividad. En general la participación ha caído un 60%. |

| | |
|---|---|
| Iñaki Iturrioz: eskola kiroleko egoera ezagutzeko ere egin dugu erronda federazioekin, egoera horretatik nola atera eta egoera horretatik nola atera jakiteko. Zentzu horretan komunikazio-kanpaina batzuk egitea planteatzen ari gara, berriz ere bultzada hartzeko.<br><br>Iñakik Aliciari galdetu dio ea nolakoa den eskola-kirol egokituaren egoera.<br><br>Alicia Figueroa: 19 EKE unitate aktibatzen saiatu gara. Beldur handia dagoela iruditzen zait. Ume batzuek autonomia eta osasuna galdu dute. Pandemiaren aurretik genuenaren herenean gaude. Orain gehiago pentsatzen ari gara udan eskain diezaiekegula. Jendeak itzuli nahi izatea kostatzen ari zaigu. Haurrak harremanetan jartzeko beldur dira. Uste dut osasun mentala murriztu egin dela. Oraingoz, ahal izan dugun guztia egiten saiatu gara, prestakuntzak eta lehiaketak aktibatzen. Uste dut uda garrantzitsua dela.<br><br>Iñaki Iturrioz: ea datorren ikasturtea bultzada onarekin hasten dugun. | IÑAKI ITURRIOZ: También hemos hecho una ronda con las federaciones para conocer la situación en deporte escolar, con la intención de conocer cómo salir de esto, en cómo salir reforzados de esta situación. Nos estamos planteando hacer campañas de comunicación en ese sentido, para volver a coger impulso.<br><br>Iñaki pregunta a Alicia cómo es la situación en el ámbito del deporte escolar adaptado.<br><br>ALICIA FIGUEROA: hemos intentado activar 19 unidades EKE. La sensación que hay mucho miedo. Hay niños que han perdido autonomía, salud. Estamos en un tercio de lo que teníamos antes de la pandemia. Ahora estamos pensando más que les podemos ofrecer en verano. Nos está costando que la gente quiera volver. Los niños tienen miedo a relacionarse. Creo que la salud mental se ha mermado. Por ahora haciendo todo lo que hemos podido, activando formaciones y competiciones. Creo que el verano es importante.<br><br>IÑAKI ITURRIOZ: a ver si podemos empezar el curso que viene con buen impulso. |

**Donostian, 2021eko martxoaren 30ean**

**Begoña Irazu Irazusta**
**Kirol teknikaria**